


Emakumeen etxeei buruzko entzute-ariketa

Eibarreko eta Zumaiako emakumeen pertzepzioaz



GIPIZKOA
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Beta

- aldaketarako beta eta aukera -

Aurkibidea

Txosten honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa emakumeen etheen ereduaren inguruan egiten ari den lanketa-prozesuan txertatzen den entzute-ariketaren emaitza aurkezten da.

1. Sarrera	3
2. Helburuak	4
3. Ikuspegi metodologikoa	5
4. Entzute-prozesua	7
5. Eibar eta Zumaia	8
6. Metodologia	11
7. Narratiba nagusiak	13
8. Segmentazioa	17
9. Ondorio orokorrak	20
Entzute-lantaldea	25

Gure eskerrik beroenak ikerketa-lan hau egitea ahalbidetu diguten elkarrizketatu zein kontraste-saioetan parte hartu duten emakume guztiei.

1. Sarrera

Emakumeen etxeak zabalkunde handia izaten ari dira, Gipuzkoan bereziki. Zabalkunde une horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lan prozesua abiatu zuen Etorkizuna Eraikiz estrategiaren barruan, emakumeen etxeen lurraldeko eredia definitzeko helburuarekin. Lanketa horrek hainbat elementu barne biltzen ditu: egoeraren azterketa, nazioarteko ereduaren ezagutza, unibertsitateko ikerketa-taldeen ikerketa hainbat alderdien inguruan ...

Bada, jarraian aurkezten dugun entzute-ariketaren emaitzak lanketa-prozesuari elementu bat gehiago gehitu nahi dio, lanketa aberastu eta osagarritasuna bilatzeko helburuarekin.

2023ko urtarrila

Entzute-ariketaren helburua emakumeek emakumeen etxeen inguruan dituzten pertzepzioak jasotzea da. Horretarako, emakumeen etxeetatik gertuago zein urrunago dauden emakumeen iritzia jaso eta horien inguruan antzematen diren erronkak eta aukerak jaso dira, emakumeen etxeen eredia emakume gehiagorengana zabaltzeko helburuarekin.

2. Helburuak

Emakumeen pertzepzioak jasotzeko entzute-prozesuaren helburu orokorrak honako hauek izan dira:

1. Hobeto ulertu emakumeek emakumeen etxeen inguruan duten pertzepzioa, aukerak eta erronkak ulertu.
2. Ulermen horretatik abiatuta, emakumeen etxearen ereduari begira palanka gisa joka dezaketen aukerak antzeman eta proposamenak identifikatu.
3. Emakumeen etxeen ereduaren lanketan diharduten eragileen ulermen partekatua sortzeko osagaiak sortu.

Finean, honako galderari erantzun nahi diegu:

Zergatik erabiltzen dituzte emakumeek emakumeen etxeak?, edo zergatik ez dituzte erabiltzen? Zeintzuk dira erabileraren erabakiaren atzean dauden pertzepzioak, dinamikak eta balioak? Zeintzuk dira horren inguruko narratibak? Zein dira pertzibitzen diren aukerak eta erronkak?

→ Entzute-ariketaren **emaitza** gisa, honako emaitza hauek irudikatu ditugu:

- Egindako entzute-ariketaren analisisa: zeintzuk dira emakumeen etxearen inguruan emakumeek dituzten pertzepzioak edota narratibak? Zer aukera eta erronka antzematen dira? Nola segmentatu ditzakegu pertzepzio horiek?
- Emakumeen etxearen ereduaren inguruan, zer aukera proposatzen dira?

3. Ikuspegi metodologikoa

Pertzepzioen azterketa egiteko (martxan dauden narratibak jasotzeko) **metodo kualitatiboak** erabili dira.

Horretarako, narratibetan¹ jarri dugu arreta eta horrela sailkatzen ditugu azterketan jasotako narratibak:

1. **Azaleko narratibak**, agerikoak, elkarrizketa irekian adierazitakoak dira.
2. **Ezkutuko narratibak** sakonago konektatutako narratibak dira, normalean zuzenean adierazten ez direnak.
3. **Metanarratibak** arazoaren muinean bizirik dauden narratibak dira, aldaketarako joera jasotzen dutenak.



Irudia. Izeberg-aren goiko partean azaleko narratibak ageriko lirateke, baina sakonago joan ahala, metanarratibetara iristeko ahalegina egiten da (hau da, ageriko narratiben azpian agertzen diren pertzepzioak, jokaera eragiten dutenak).

Aritzeko, ikertzeko moduari dagokionez, narratiba horiek modu gradualean ezagutu nahi izan ditugu, modu ez linealean arinetik sakonerako bidea eginez. Horretarako, lan egiteko moduan prozesuak berebiziko garrantzia izan du. Pixkanaka hasi gara, hortik erauzitakoa aztertu, eta arakatzen joan, dauden pertzepzioen mapa izan arte.

Hain zuzen ere, entzute-ariketaren helburua izan da emakumeen etxeen inguruan dauden narratiba edota diskurtsoetara iristea.

Emakumeek emakumeen etxeen inguruan dituzten narratibak edota pertzepzioak azaleratzeko, **bi iterazio (bi erronda)** desberdin egin dira:

- ✓ Lehen iterazioak azalean dauden narratibak erakutsi dizkigu, sakondu beharreko hariak eta korapiloak erauziz.
- ✓ Bigarren iterazioaren bidez narratiben jasoketa zabaldu dugu, aurretik erauzitako narratiba horietan sakonduz.

¹ Narratibak, pertzepzioak edota diskurtsoak

Garrantzitsua izan da:

- Ahalik eta emakume anitzagotara iristeko ahalegina (batez ere bi irizpide kontuan hartuta: adin-tartea, jatorria).
- Ahalik eta kontraste gehien egitea. Kontrasteak taldeka egiten dira, eta horietan elkarrizketetatik abiatutako analisia aurkeztu eta kontrastatu egiten da, aurkeztutakoak errealitatea islatzen duen jakiteko helburuarekin. Kontrasteak elkarrizketatuez gaindiko talde desberdinekin egiten ahalegindu gara.

Elkarrizketak eta kontrasteak **lehen mailako azterketa-iturri** kontsideratu dira. Era berean, gaiari buruz egindako azterlanak zein datuak bigarren mailako iturri gisa erabili dira.

Hauek izan dira erabilitako **bigarren mailako iturriak**:

- Gipuzkoako Foru Aldundia, EDE Fundazioa, 2018. *Indarkeria matxistari lotuta, emakumeen etxeen zeregina. Diagnostikoa eta indartzeko proposamenak.*
- Deustuko Unibertsitatea, 2022. *Basauri, Ondarroa eta Durangoko emakumeen Etxetan indarkeria matxistako egoerei aurre egiteko jardunbide egokien identifikazioa.*
- AFIT Antropologia feminista ikerketa-taldea, 2022. *Mugimendu feminista eta emakumeen etxeak: harremanak eta erronkak.*

4. Entzute-prozesua

Entzute-prozesuaren koordinazio operatiboa ahalbidetzeko **talde eragile** txiki bat osatu da entzute lantaldeko bi kide (Jokin Lekuona Zabala eta Leire Cancio Orueta), Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen berdintasun organoko kide bat (Edurne Aranbarri Andueza) eta emakumeen etxearen azterlan orokorraren koordinatzaile den Elhuyarreko taldeko bi kideen artekoa (Joxepa Bornaetxea Estela eta Joana Regueiro Martinez).

Entzute-ariketaren landa-lana egiteko taldea Enya Azkarraga Oñederra eta Itxasne Urionabarrenetxea Otazua antropologoen osatu dute.

• **Entzutearen lantaldearen** zereginak honako hauek izan dira:

- Entzute-prozesuaren koordinazioa.
- Elkarrizketak prestatzeko lana.
- Entzute- gidak prestatu, tresnak, irizpideak, etab.).
- Elkarrizketak planifikatu eta egin.
- Elkarrizketen hustuketa, analisia eta sintesia egin prestatutako euskarrietan.
- Informazioaren analisia egin.
- Analsiaren kontrastea egiteko saioak diseinatu eta gauzatu.
- Txostena idatzi.

Hauxe izan da entzute-ariketak jarraitu duen sekuentzia:

	Uztaila	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila
1. Aurrelanak						
Lagina adostu, galdetegiak prestatu, entzutea egiteko jarraibideak landu eta adostu	Prestaketa					
Lantaldea prestatu, trebatu, irizpideak adostu						
Prozesuko dokumentazioaren analisia, irakurketa						
2. Landa-lana						
Elkarrizketak egin eta erregistratu		1. iterazioa		2. iterazioa		
Kontraste-saioak egin					kontrasteak	
3. Analsia						
Analisa(k)						
Txostena landu					Txostena	

5. Eibar eta Zumaia

Elkarrizketak Eibarren eta Zumaian egin dira. Eibarreko emakumeen etxea (Andretxea) Gipuzkoako emakumeen etxeen artean aitzindaria dugu. Zumaiaiko emakumearen etxea (Zumaiaiko emakumeon etxea), aldiz, berrienetarikoa dugu, eta prozesu partehartzaile baten ondoren sortu zen.

→ Eibarreko Emakumearen etxea, Andretxea

2004ko martxoan sortu zen Emakumeen Nazioarteko Egunean, Udal ordezkariak, Emakumearen Mahaiak eta genero berdintasunaren aldeko herriko elkarteek sustatuta. Honakoa, Eibarko mugimendu feministak eskatutako ekipamendua izan zen, eta Gipuzkoan ireki zen bigarren emakumeen etxea izan zen, 2004ean hain zuzen ere.

Andretxea Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren baliabidea da, eta berdintasunaren eta tratu onen alde lan egiteko helburuarekin bat datozen herritar guztien espazio irekia da, eta udalak kudeatzen du. Gainera, elkarlanerako, kultura-aniztasunerako, emakumeen



ahalduntzerako, elkartegintzarako eta hiritarren partaidetzarako gunea ere bada. Informazioa, orientazioa eta aholkularitza, zaintza eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua, formakuntza eta sentsibilizaziorako programak eta kanpainak eta baliabideak (liburutegia eta hezkuntza-materiala) eskaintzen ditu².

→ Zumaiaiko Emakumeon etxea

Zumaiaiko Emakumeon* Etxea eraikitzekeo elkarteak sortu zen lehenbizi, eta 250 bazkide baino gehiago dira dagoeneko. Udalak sustaturik, Etxea diseinatzeko bilera irekiak egin ziren, eta geroztik asanbladetan hartu dira haren inguruko erabakiak, mugimendu feministaren eta Udalaren elkarlanean. **2021eko irailean** ireki zen Zumaiaiko Emakumeon* Etxea, eta ordutik emakume askoren lanari esker martxan dago.

² Eibarreko udaleko webgunetik. https://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea?set_language=eu

Emakumeon* Etxean egitarau zabala antolatzen da. Alde batetik jabetze eskola dago, emakumeon ahalduntzea helburu duen egitasmoa. Bestetik, elkarguneak daude, urte osoan zehar iraunkorrak diren taldeak.



Zumaiako Emakumeon* Etxea

Eta horrez gain, ko-gestioan oinarritutako eredu baten bidez, agenda zabal bat eskaintzen da, era guztietako ekintzez osatuta. Hainbat aholkularitza zerbitzu ere eskaintzen dira.³

→ Eibar eta Zumaia, zenbakitan

Eibar eta Zumaia udalerriek ere badituzte ezaugarri desberdinak, populazioari dagokionez.

Eibarren, 2021en Eustat-en arabera 27.195 pertsona zeuden erroldatuak, eta, horietatik % 48 emakumezkoak ziren. Zumaian aldiz, epealdi berdinean 9.983 ziren erroldatutako pertsonak eta horietatik % 50 ziren emakumezkoak.

Eibarren, 2021an atzerriko populazioa % 10koa zen (eta Euskal Autonomia ez besteko Espainiar Estatukoak % 16); Zumaian aldiz % 8koa (eta Euskal Autonomia ez besteko Espainiar Estatukoak % 10).

Adin-tarteka, hauek dira bi udalerrien populazioaren datuak⁴.

³ <https://www.zumaiakoemakumeonetxea.eus/>

⁴ Eustat-eko datuak

			2021
Eibar	Guztira	Guztira	100
		Gizonezkoak	48,45
		Emakumezkoak	51,55
	0 - 19	Guztira	18,47
		Gizonezkoak	9,45
		Emakumezkoak	9,02
	20 - 64	Guztira	56,5
		Gizonezkoak	28,38
		Emakumezkoak	28,12
	> = 65	Guztira	25,03
		Gizonezkoak	10,62
		Emakumezkoak	14,41
Zumaia	Guztira	Guztira	100
		Gizonezkoak	49,65
		Emakumezkoak	50,35
	0 - 19	Guztira	22,09
		Gizonezkoak	11,34
		Emakumezkoak	10,75
	20 - 64	Guztira	58,07
		Gizonezkoak	29,21
		Emakumezkoak	28,86
	> = 65	Guztira	19,84
		Gizonezkoak	9,11
		Emakumezkoak	10,74

6. Metodologia


Informazioa eskuratzeko honako bideak erabili dira:

[Elkarrizketak] Elkarrizketak erdi egituratutako elkarrizketak dira, ez dira elkarrizketa sakonak, eta banaka egin dira.

Lanketa emakumeen artean zentratu da, 18 urtetik gorakoen artean. Lagina ahalik eta ordezkarriaren izaten ahalegindu gara (hau, da tokiko populazioaren adinaren banaketaren arabera izaten). Azpimarratu nahiko genuke ordezkarritasuna lortzen ahalegindu bagara ere, lagina motz geratu dela EAera etorritako emakumeak elkarrizketatzeko ahaleginean, guztira 5 elkarrizketatu dira.

25 emakume elkarrizketatu dira Zumaian, eta 26 Eibarren (guztira, **51**).

Honela banatzen dira egindako elkarrizketak: 4 emakume 18 urtetik 25 urte bitartean, 12 emakume 26 eta 35 urte bitartekoak, 14 emakume 36 urtetik 45 urte bitartekoak, 7 emakume 46 urtetik 55 urte bitartekoak, 5 emakume 56 urtetik 65 urte bitartekoak eta 9 emakume 65 urtetik gorakoak.



Entzute-prozesua bi iterazioetan burutu dugu. Bi iterazio horietan izandako elkarrizketak edota kontrasteak **59 pertsonakoa** izan da:

- 51 lagun 1. iterazioan.
- 8 lagun 2. iterazioan (bi kontraste-saioen bidez).

8 lagunek lehen bi iterazioetan parte hartu dute.

Bi ohar:

→ Azpimarratzekoa da **elkarrizketatuak lortzeko izandako zailtasuna**. Eibarreko eta Zumaia emakumeak lortuta ere, kontaktatuko zenbait emakume ez dute elkarrizketarako prestutasunik erakutsi. Motiboak anitzak izan badaitezke ere, emakume batzuk adierazi dute atzera botatzeko motibo gisa emakumeen etxeak ondo ez ezagutzea.

→ Elkarrizketatuengana iristeko, adinaren arabera segmentazioa erabili dugu (hau da, adin-tarte bakoitzean udalerrri bakoitzak duen portzentajea laginera eramaten saiatu gara). Emakumeen etxeak ez dira izan elkarrizketatuetara iristeko bide nagusia (bai lagundu dute), eta nagusiki laginketa egiteko **elur-pilotaren teknika** (elkarrizketatuen bidez beste pertsonetara iristeko ahalegina) erabili da.

Elkarrizketa bakoitzeko fitxa bana osatu da, eta bertan jaso dira galderi emandako erantzunak. Elkarrizketak ondoren prozesatu dira, narratibak eraziz. Narratibak adierazten ditugun iritzia dira, eta pertzepzioak adierazten dituzte. Narratiba horien analisirako gaika multzokatu, eta, aukera, erronka, erraztatzaile eta oztopoak erazten dira. Narratiba guztiak beheko irudietan adibide bezala erakusten den prozesamendu-taulan jasotzen dira modu xehetuan (taula osoa eranskinetan gehitzen da).

1. MAILAKO ITURRIEN PROZESAMENDUA												
GAIA	AZPIGAIA	TAGS	Alpuzkila	KODIA	AIPUA	BALIOA	ERRONKA	EMAGAZLEA	BIDERAZTALIA	AUKERA	Maistasuna	KOMENTARIOAK
Irismena	Urruntasuna	Identifikazio falta		E09	"Creo que yo no soy el perfil, se dirige más a mujeres migrantes y mujeres que tienen cierta edad. No me siento identificada. No es interesante para mi perfil"						Kop. Eibar	
Irismena	Urruntasuna	Lotura eza		E04	"Badaude eragile feministak herrian eta ez ditut ikusten andraetxean, erreferenteak faltan dira"						Kop. Zumai	
Irismena	Urruntasuna			Z01	"Nire pertsonalitatearengatik ez zait gustatzen lehenengo larran egotea. Bai apoiatzen dudala, adibidez, emakumeen							

Irudia. Prozesamendu-taula

[Kontraste-saioak] Elkarrizketetatik erazi eta interpretatutakoa kontrastatzeko asmoz, 2 kontraste-saio egin dira⁵:

- 2022ko abenduaren 5ean elkarrizketatutako 4 emakumeekin online kontraste-saio bat burutu zen.
- Formulario bidez, elkarrizketatutako emakumei profilak helarazi zitzaizkien iritzia jasotzeko. (4 emakumeren ekarpenak jaso ziren).

⁵ Ikus kontraste-saioen aktak eranskinetan.

7. Narratiba nagusiak

Jarraian entzute-prozesuaren bitartez jasotako narratiba nagusiak biltzen ditugu, gaiaren arabera multzokatuta. Gai horiek entzute prozesuan zehar sortzen joan dira, eta multzoak elkarrizketetan modu naturalean ateratzen ziren gaiak batuz osatu dira. Narratibak norbanakoek adierazten dituzten pertzepzioak dira, eta batzuetan kontraesankorrak izan daitezke.

Narratiba nagusiak honako gai-multzotan banatu dira:

1. **Irismenarekin** lotutakoak: emakumeek emakumearen Etxearekiko sentitzen duten gertutasun edota urruntasuna (norbanakoaren planotik).
2. **Zabalkundea**: emakumeen etxeetara emakume gehiago erakartzearekin erlazionatutako iritziak.
3. **Komunikazioa**: emakumeen etxeak egiten dutena komunikatzeko behararekin lotutako narratibak.
4. **Helburuak**: emakumeen etxeek duten helburua edota egitekoarekin lotutako pertzepzioak (elkarrizketatuek ulertzen duten horrekin).
5. **Emakumeen etheen garrantzia**: atal horretan, berdintasunaren bidean emakumeen etxeek duten paperarekin lotutako narratibak jasotzen dira.
6. **Baliabideak**: azken multzo horretan, emakumeen etheen baliabideen inguruko iritziak bildu dira.

1) Helburuak

Emakumeen etxeak duen helburuei buruzko narratibak, logikoa denez, asko aldatzen dira “erabiltzaile/gertuko” eta “ez erabiltzaileen” artean. Azpimarratzekoa da gertuko eta ez gertukoen artean nabari den begirada desberdinak. Gertuko pertsonak edozer emakumeren beharrak erantzuteaz, saretzea eta ahalduntzeaz hitz egiten dute, horien positibotasuna adieraziz. Halaber, asko dira irekitasunarekin eta espazio seguru kontsideratzearekin agertzen diren narratibak.

Ezagutzen ez dutenek aldiz, termino orokorragoekin hitz egiten dute, berdintasunarekin adibidez, edota oso eskaintza zehatzarekin (ikastaroak).

#beharrak erantzun

“Behar ezberdinei erantzuten dio. Bakoitzak bere beharrak ditu eta hortik gerturatzen da emakumeen etxea”. Y05

#saretzea

“Yo creo que es para juntar, para ayudarnos unas a otras con conversación, actividades...cada una con su situación. Hay actividades para todas. Ayudar a las mujeres y acompañarlas en sus necesidades”. Y22

#ahalduntzea

"Emakumeentzat espazio seguru bat sortzea, eta baita ere lanketa egiteko gune bat; lanketa kontziente bat, zer den emakume izatea, horrek zer ekartzen duen eta gizartean zein lekutan gauden ohartarazteko". Y03

#irekitasuna

"Epaitu gabeko espazio batera iristen zara. Elkarrizketak eta harremanak beste modu batekoak dira. Hurbiltzeko ze ekimen pila bat egiten dira." Y04

"Edozein emakume edozer gauza lantzeko leku bat dira emakumeen etxeak". Y23

#ezagutza falta

"Egia esan ez dakit. Ikusi dut egiten dutela berdintasunaren alde. Ez dakit esaten zer diren". Y08

#berdintasuna

"Nik ulertzen dut, ez dakit zer diren, baina nik pentsatzen dudana direla leku bat berdintasunerako bidean lan egiteko aukerak ematen direnak: emakumeak elkartzeko, elkarreei lekua emateko, ikastaroak, eta bueno, udaletxeko berdintasun sailetik ere aurrera eramaten diren jarduerak guzti horiek hor daukatela pixka bat beraien lekua". D16

2) Atxikimendua

Emakumeen etxeekiko gertutasun edota urruntasuna adierazteko orduan, narratiba desberdinak ageri dira: batetik, zenbait emakumek bizi duten unearen arabera gerturatzeko zailtasunak aipatzen dituzte (amatasunarengatik, nagusiki); bestetik, emakumeen etxetik gertuago egon daitezken zenbait emakumek erreferenteen falta aipatzen dute (eta, ondorioz, sartzeko bide alternatiboak adierazten dituzte); urruntasun fisikoa, geografikoa (herrian urruti egoteagatik); zenbait emakumek modu publikoan parte hartzeko erakusten dituzten zailtasunak (lehen ilaran egotea ez gustatzeagatik); komunikazioak atxikimendua sortzeko dituen zailtasunak, etab. Jarraian, narratiba horietako bakoitza islatzen duen aipu bat aurkezten dugu:

#identifikazioa

"Creo que yo no soy el perfil, se dirige más a mujeres migrantes y mujeres que tienen cierta edad. No me siento identificada. No es interesante para mi perfil". D09

#erreferenteak

"Badaude eragile feministak herrian eta ez ditut ikusten emakumearen etxean, erreferenteak faltan dira. D04

#esposizio publikoa

“Nire pertsonalitatearengatik ez zait gustatzen lehenengo ilaran egotea. Bai babesten dudala, adibidez, emakumeen etxeak egindako bazkarietara-eta joaten”. Y01

#gertukoak

“Mugimendu feministakoek hartzen dute parte, baina nire ingurukoek hainbeste ez”. Y05

#komunikazioa

“Oraingo bideak azalean geratzen dira” K00

3) Zabalkundea

Atxikimenduarekin lotuta, aniztasunaren edota zabalkundearen gaia azaleratzen da, emakumeen etxera hurbiltzen diren emakumeak anitzagoak eta gehiago izatearena. Zabalkunde horretan, bi ideia jasotzen dira: batetik, emakume gehiagorengana iristeko aukera; eta, bestetik, emakumeen talde anitzagotara iristearena (gazteak, adibidez). Zabalkundearekin lotuta, euskararen gaia aipatzen da: nola bermatu euskararen tratamendua euskara ez dakitenentzako oztopo izan ez dadin.

#populazioan zabaldu

“Populazioaren zati handi bat oraindik ez da gerturatu”. Y05

“Gertatzen da beste leku askorekin bezala, informazioa badago baina hori guztia eginda ere ez da erraza jendeari heltzea, elkarte guztien edo mugimendu guztien arazoa da hori”. D16

“Elkarrizketari esker dakit hori dagoela, gehiago zabaltzea egongo litzateke. Komentatutako emakumeek ez zuten ezagutzen. Agian bide gehiago erabili (zabaltzeko). Y08

#nola zabaldu?

“Zailtasun handiena, orain bota 400-500 emakumek parte hartzen dutela urte betean... Nola iritsi beste batzuegana? Ez direnak sare sozialetan ibiltzen edo ez dituztenak kartelak irakurtzen edo orain heldu direnak edo emakume horiek bizitza guztia eman dutenak etxeko lanak egiten. Nola iritsi horiengana?. Y03

#gazteak

“60 urtetik gorako emakumeak ikusten ditut emakumeen etxean, gazteak urrutiago ikusten ditut”. D01

#euskara

“Euskararekin ere izan dugu gure erronka. Nola kudeatu... Erronka hau toki guztietakoa da. Ongi kudeatzea irekia izateko, baina ez galtzeko euskal identitatea bidean. Nolako ekimenak antolatu, elebidunak, elebakarrak..”. Y10

***Eibarreko emakumearen etxearen kasuan, leku fisikoa aipatzen da, heltzeko zailtasuna:**

“Ez da ikusten. Lekua ezkutuan dago, irisgarritasuna faltan, ez egokitua”. D04

4) Emakumeen etxeen garrantzia

Emakumeen etxeak berdintasunaren eta ahalduntzearen alde lan egiteko aukera gisa somatzen dira: biolentzia matxistarekin zerikusia duten egoerak, zein berdintasunaren bidean (ahalduntzetik).

“Indarkeriaren bat jasan baduzu, horra joatea daukazu”. Y01

“Emakumeen problematika eta bideratzeko eta elkartasuna eta ahalduntzeko gune inportante bat eta beste emakumeekin sartzeko eta gizarteari planteamendu aldaketa bat egiteko paper inportantea jokatzen du.” Y12

“Hemengo eta kanpoko emakumeei harrera egiteko leku bat. Denak komodo sentitzeko. Emakumearen berdintasuna bilatzeko leku bat.” Y13

“Es un sitio en el que te vas a divertir y te van a apoyar. Vas a tener amigas y te van a comprender lo que tú quieres decir porque a todo el mundo le pasa algo. El espacio de la mujer es un espacio nuestro y tenemos que ir y que no nos lo quite nadie”. D19

5) Baliabideak

Emakumeen etxeek baliabide gehiago behar dituztenaren iritzia adierazten dute zenbait narratibek.

“Ekonomikoa zailtasun potentea da. Udalak lokala jarri du eta lokaleko gastuak gunetik. Dinamizatzaile edo teknikari bat dago egun erdiko eta ez da nahikoa.” Y12

“Laguntza eskatuta dago. Erronka: pertsonaren jornada egokitu behar da. Askotan mugimendu bat aurrera eramateko pertsona bat dago beti tiraka eta pertsona horrek badauka bere bizitza. Langile gehiago behar badira hauek jarri.” Y10

8. Segmentazioa

Lehenengo eta bigarren iterazioetan elkarrizketatutako emakumeen narratibak jaso ondoren eta horien analisia eginda, 3 profil ziren nabari. Profil horiek ez dira estereotipoak, **narratiba-blokeak** baizik, eta horrela, gizartean operatzen ari diren narratibak antzekotasunaren arabera multzokatzearen emaitza dira. Aurrez erakutsitako narratiba nagusiak profil hauetan segmentatuta daude, informazioa erabilgarriago izan dadin. Bi iterazioetatik ateratako profilak honakoak dira:

Profila 1

Lehen profilak jasotzen du emakumeen etxea oso gertutik bizi duen emakumea. Oso gertutik bizi ditu emakumeen etxeen beharrak (baliabide falta eta barne-lan-gileen inplikazio altua) eta emakumeen etxeen zabalkundearen jartzen du arreta. Emakumeen etxeen egiteko gisa, saretzea eta ahalduntzea aipatzen ditu modu nabarmenean.



Mari Carmen

Adina _____ 58
Ikasketa Maila_ Unibertsitatea
Irakaslea

"Emakumeen ahalduntzerako eta saretzerako espazioak dira. Gizarteari begira ere lan hori egiten duten espazioak dira"

★ Aldaketarako jarrera: positiboa

★ Ardurak: erakundeena

"Komunikazio onik gabe, sektore gehiagotara iristea ezinezkoa da ..."



ERRONKAK

- ▲ Emakumeen etxea zertarako den jakinaraztea; jendeak ez daki zer gertatzen den bertan.
- ▲ Euskara eta inklusioa elkarrekin lotzea. Emakumeen etxe inklusibo bat nahi dugu, baina mundu guztiak ez du euskara ulertzen. Lanketa bat egin behar da.
- ▲ Langileen inplikazio pertsonal handia eskatzen dute emakumeen etxeek.



AUKERAK

- Komunikazio teknikak birplanteatzearekin jendearengana iristea lortu dezakegu.
- Espazio berri batek jendea erakartzen lagunduko du (Eibar).

Profila 2

Bigarren profilak emakumeen etxeak urruti ikusten dituen emakume baten profila jasotzen du, ez du oso argi zein diren emakumeen etxeen helburuak eta ez ditu bere bizitzaren parte bezala antzematen. Emakumeen etxeen helburua oso argi ez izanik ere, bertan gertatzen dena ikastaroekin, formakuntzarekin lotzen du.



Oihane

Adina: 40
Ikasketa Maila, Unibertsitatea
Administraria

"[EE] Pentsatzen dut egongo direla emakumeen eta baita gizonezkoen arteko berdintasuna lantzen, informazioa eman eta jarduerak antolatzen"

★ Aldaketarako jarrera: indiferentzia

★ Ardura: kanpokoa



ERRONKAK

- ▲ Emakumeen etxeek egiten dutena ezagutzea.
- ▲ Emakumeen etxean parte hartzen duten emakumeen eta helburuen inguruko ideiarekiko identifikazioa eza.
- ▲ Denbora pertsonalaren banaketa dela -zaintza- eta, beste "ekintza" batzuetara irekia egoteko zailtasunak ditu.



AUKERAK

- Bere errealitatek gertuago dauden gaiak lantzeak lagundu dezake (amatasuna).
- Emakumeen etxea ezagutzeak gerturatzeko lagundu dezake.

Profila 3

Hirugarren profilak emakumeen etxeak ezagutzen dituen emakume baten profila jasotzen du, nahiz eta berak ez duen aktiboki parte hartzen beste saretzeko alternatiba batzuk dituelako. Emakumeen etheen helburuak ezagutzen ditu eta zabalkunde jartzen du indarra (zabalkunde horretan, belaunaldiartekotasuna eta beste jatorrietako emakumeak aipatzen ditu nagusiki). Emakumeen etxeek genero indarkeria pairatu duten emakumeak laguntzeko jokatzeko duten laguntza-rola azpimarratzen du.



Lorea

Adina: 28
Ikasketa Maila: Unibertsitatea
Sortzailea

“Populazioaren zati
handi bat oraindik ez da
gerturatu”

★ Aldaketarako jarrera:
positiboa

★ Arduraren norberarena

“Emakumeen
etxea emakume
gehiagotara iritsi
behar da”



ERRONKAK

- ▲ Aniztasuna. Ahalik eta emakume anitzenak hurbiltzea emakumearen etxera.
- ▲ Saretzea. Ahalik eta gehiago zabaltzea.
- ▲ Gazteen eta helduen arteko arrakala. Belaunaldi ezberdinek baten edo besteen espazio gisa ikusten dute, ez denona bezala. Erreferenteen falta.



AUKERAK

- Kogestioa. Elkarrekin gestioa eramateak aukerak ematen ditu espazioa emakume gehiagotara zabaltzeko, eta emakume taldeek espazio propioa bezala ikusteko.
- Espazio seguruak dira. Indarkeria matxistari begira paper garrantzitsua jokatzeko dute.

9. Ondorio orokorrak

Entzute-ariketak, pertzepzioak ezagutzea izan du helburu nagusia. Pertzepzio (edota narratiba) horien ezagutzeak ordea, aurrera egiteko bide berriak irudikatzea du helburu nagusizat. Hortaz, helmuga baino abiapuntu gisa ikusten dugu egindako ariketa.

Ondorioen atala segida bat (edota zirrikitu berriak asmatzeko bidea) bilatu nahi duen galdera batzuekin osatu dugu, ideia berrien akuilu izateko borondatearekin.

9.1. Aukerak eta erronkak

Entzute-prozesuan zehar egindako elkarrizketen analititik, eta prozesatutako informazio horren kontrastearen ondoren, ondorio orokor batzuk aurkezten dira. Ondorio horiek bi multzotan banatu ditugu: emakumeen etxeek dituzten aukerak eta erronkak.

→ Aukerak, indartzeko puntu gisa definitzen ditugu, eta aukera horiek nagusiki pertzibitzen diren indarguneen inguruan eraikitzen dira. Izan ere, indargune horien zabalkundea, sendotzea edota horien sozializazioan lan egitea izan daiteke emakumeen etxeen eragina zabaltzeko bide bat (hau da, palanka gisa joka dezakete).

→ Erronkak aldiz, pertzibitutako gabezietatik eraikitzen dira, barne- zein kanpo-gabeziak.

Berriz ere azterlanaren abiapuntura jo nahiko genuke oinarritzko kontsiderazio bat egiteko: pertzepzio horiek (narratibak) gure jokaerarekin guztiz lotuak daude, datuek edota ebidentziek beste zerbait esaten badute ere (“errealitate objektiboa” bezala uler dezakeguna”).

1) Aukerak/indarguneak

- Emakumeen etxeak **ez dira ekipamendu soil** bat (normalean gure herri edota hiri inguruneetan ditugun ekipamenduen antzera, zerbitzu eskaintza bat egiten dutenak). Saretzeko espazioak dira, **harremantzea** oinarri duten espazioak, **elkarguneak**. Emakumeen etxeen helburuari buruz dauden narratibek, askotan, berdintasuna, irekitasuna, saretzea eta, batez ere, **ahalduntzearen** inguruan hitz egiten dute. Ezaugarri horien inguruan beti modu positiboan mintzatzen dira elkarrizketatuak.
- Hain zuzen ere, emakumeen etxeak ematen duen harremantzeko bide horrek sarerik ez duten edota sarea zabaldu nahi duten emakume

askorentzat (bertako zein beste jatorri batzuetakoak) **integrazio eta sozializazio-bide** dira.

- **Beharrak** asetzeko espazio ireki bezala antzematen dira, berehalako laguntza emateko bide bezala kasu batzuetan, eta espazio ireki gisa beste kasu batzuetan. Ideia horrekin lotuta, espazio seguru gisa kontsideratuak dira emakumeen etxeak.
- Emakumeen etxeen harremantze eta lan egiteko modua (zerbitzu-prestaziotik haragokoa) **emakumeen etxeeko langileetara** ere zabaltzen da pertzepzioan: inplikazio maila altuko pertsonak bezala antzematen dira (eragile, saregile).
- Elkarte eta udal erakundeen arteko **gestio partekatu** bidez zein emakumeen partehartzea sustatzea ahalbidetzen duten emakumeen etxeak harremantze horretan sakondu eta ahalduntzean sakontzeko aukera gisa antzematen dira.

2) Erronkak/gabeziak

- Emakumeen etxeek aurki ditzaketen erronken artean **ezagutza falta** da aipatzen den nagusienetako bat. Parte hartzen ez duten emakumeen artean, urruntasuna nabari da, eta nahiz eta emakumeen gehiengoak ezagutzen duela esan, urrutiago dauden emakume horiek ez dute pertzibitzen emakumeen etxeen bereizgarria (saretzea eta ahalduntzea). Ezagutza horrekin lotuta irismen falta ere aipatzen da, baina zenbait kasutan komunikazioa egonik ere, beste jarduera edota erakundeen egoerarekin parekatzen da: hau da, komunikazioa iritsita ere, herriko “eskaintza” handia egoteari leporatzen zaio iritsitako hori ere informazioa jasotzen dutenak ez bereganatzea.
- **Atxikimendu falta** ere erronka bezala ezaugarritzen da. Hau da, nahiz eta emakumeen etxeek egiten dituzten ekintza eta jardueren alde egon, pertsona batzuk ez dute horietan parte hartzeko hainbesteko joerarik, beraien elkartasuna bigarren plano batetik adieraziz. Zentzu horretan, atxikimendu horrekin lotutako ideia gisa erreferenteen falta zein zenbait emakumek “bigarren planoan gelditzeko” (protagonismo edota esposizio publikotik ihes egiteko nahia bezala interpretatzen dugu) nahia esplizitatzen dira.
- Emakume **talde gehiagotara iristeko** erronka ere bada azaleratzen den gabezia. Emakume taldeen artean gazteengana iristeko bideak azpimarratzen

dira nagusiki. Eta, ez bakarrik, emakume multzo desberdinen arteko **elkarbizitza**-espazio gisa, baita espazio partekatu gisa sendotzeko (belaunaldi artekoa, gazteak, jatorrian anitza...) ere.

- Aurreko ideiarri lotuta, tokikotik (euskaratik ere) espazio **irekiak eta inklusi-boak** eraikitzeke erronka mahaigaineratzean da.
- **Baliabideen** auzia ere hor dago. Emakumeen etxeek baliabideak falta dituztela aipatzen da, eta beraien jarduna jarraitzeko baliabide gehiago behar dira azpimarratzen da.

9.2. Eta, orain zer?

Jarraian aurkezten diren galderak akuilu izateko borondate xumea dute, eta entzutean jasotako pertzepzioetan oinarrituta aukera berriak irudikatzeke bidea ematea dute helburu.

→ Aukera edota erronka horien gainean, honako galderen inguruan lan egin dezakegu aukera horiek arakatzeko asmoz:

- Nola zabaldu dezakegu sarea? Nola lortu ditzakegu lotura berriak?
- Nola sustatu/zabaldu dezakegu gestio partekatua?
- Nola sortu ditzakegu emakumeen etxera hurbiltzeko/ezagutzeko modu berriak?
- Nola ikusarazi dezakegu emakumeen etxeen balio bereizgarria?
- Nola lortu baliabide gehiago?
- Nola sortu ditzakegu elkarbizitza-espazioak?
- Zer baldintza bermatu behar da askotariko emakumeek parte hartzeko aukera izan dezaten?

→ Segmentazio-ariketak emakumeen etxeen inguruan dauden pertzepzio-multzoak erakusteko modu bat izateaz gain, izan daitezke bidea egiten dugunarekin zer profili edota profilei zuzentzen ari gatzaion galdetzeko:

- Egiten ditugun jarduerak zer profili (edota profilei) erantzuten diote?
- Egin al dezakegu egitasmorik edo ekintzarik beste profilei begira?

Azken finean,

Egiten eta komunikatzen dugunak, zer narratiba, zer pertzepzio elikatzen ditu?

ERANSKINAK

- Elkarrizketen fitxa-eredua
- Elkarrizketen fitxak (digitalean)
- Prozesamendu-taula (digitalean)
- Kontraste-saioen aktak (digitalean)
- Entzute-lantaldea

ELKARRIZKETEN FITXA-EREDUA

Emakumeen etxeak

<input type="checkbox"/> Zumaia <input type="checkbox"/> Eibar	Data:	Elkarrizketatzailea:
--	-------	----------------------

FITXA-ELKARRIZKETA	
DATU OROKORRAK	
(Elkarrizketatua) Izen-abizenak	
Adina (Jaso adin zehatza)	
Generoa (X jarri aurretik)	Emakumezkoa Gizonezkoa Ez binarioa
Herria eta auzoa	
Auzoa (maila ekonomikoa) (X jarri aurretik)	Baxua Ertaina Altua
Hezkuntza-maila (Jaso maila zehatza)	
Lanbidea	
Jaioterra	
Nola deskribatuko zenuke zure denboraren banaketa? Ingu-ruko zaintza kontestua nolakoa da?	
Nola definituko zenuke egungo gizartean emakumearen egoera? Eta, zurea emakume gisa?	
Mugimendu sozialetan parte hartzen duzu? Emakumeen eskubideen aldeko mugimenduan?	

Galderak

Ohar orokorra: modu irekian jaso, zer da pertsona horrek pentsatzen duena baina modu irekian adierazten ez duena?

[PERTZEPZIO OROKORRA] Ba al dakizu zer diren emakumeen etxeak?	
[EZAGUTZA] Zure herrian bada horrelakorik? (Jaso non dagoen eta bere etxetik gertu ala urruti somatzen duen)	

[EZAGUTZA] Nola izan duzu emakumeen etxeen berri?	
[PARTEHARTZEA] Hartu izan al duzu inoiz baten batean parte?	
[PARTEHARTZEA] Zertan hartu duzu parte?	
[PARTEHARTZEA] Zergatik parte hartzen duzu?	
[PARTEHARTZEA] Zure inguruko norbaitek hartu izan du parte?	
[DESKRIBAPENA] Zer gertatzen da emakumeen etxean?	
[DESKRIBAPENA] Nola deskribatuko zenuke?	
[DESKRIBAPENA] Eta nori dago zuzenduta?	
[DESKRIBAPENA] Zein da zure ustez emakumeen etxeen helburua?	
[ERRONKAK] Zein dira emakumeen etxeek aurki ditzaketen erronkak, zailtasunak? (Gizarte-talde ezberdinetara iristea, militanteen gehiegizko esplotazioa...)	
[AUKERAK] Zein dira zure ustez, emakumeen etxeek egiten dutena zabaltzeko edota emakume gehiagotara iristeko dituzten aukerak?	
Kontraesanak, jarrera, tonua, enfasia, kontestua, erreakzioak...	
ZITAK (AIPUAK)	

ENTZUTE-LANTALDEA

- Proiektuaren koordinatzailea: **Leire Cancio Orueta**
Ekonomia eta Enpresa Zientzietan eta Psikologian lizentziaduna da. Ekonomia sozial eta solidarioan Masterra ikasten dihardu. Aldaketa-prozesuetan eragiten egiten du lan: berrikuntza sozialeko prozesuak, antolakuntza-aldaketa eta sormena erraztu eta bultzatzeko prozesuak. Aurretik Agirre Lehendakaria Center berrikuntza laborategian jardun zuen eta urte luzez Elhuyar fundazioan aritu da proiektuen garapenean eta kudeaketa orokorrean.
- Proiektuen koordinatzailea: **Jokin Lekuona Zabala**
Euskal Herriko Unibertsitatetik Gizarte Antropologian graduatua da, Gizarte Antropologian Ikerkuntza Master bat du Aberdeengo Unibertsitatearen (Aberdeen, Eskozia) eskutik, eta Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra EHUren eskutik. Lan munduan arlo ezberdinetan du esperientzia, horietan nabarmenena Gizarte Berrikuntzaren arloan izan da, Agirre Lehendakaria Centerren.
- Entzute lantaldeko kidea: **Itxasne Urionabarrenetxea Otazua**
Euskal Herriko Unibertsitatetik Gizarte Antropologian graduatua da, eta Gizarte Antropologian Masterra du. Arte Garaikidearen Kontserbazioa eta Erakusmoldeak Masterra egiten dihardu EHU/UPV-n. Entzute-prozesuetan eskarmentua du (Gazteen pertzepzioa euskararen erabileraren inguruan. 2021. Agirre Lehendakaria Center).
- Entzute lantaldeko kidea: **Enya Azkarraga Oñederra**
Enya Azkarraga Oñederra: Euskal Herriko Unibertsitatean Antropologia Sozial eta Kulturean lizentziaduna. Gizarte Antropologia Ikerketa eta Bigarren Hezkuntzan giza eta gizarte zientzietarako irakaskuntzako masterrak egin ditu UPV-EHU. Entzute-prozesuetan esperientzia du (Gazteen pertzepzioa euskararen erabileraren inguruan. 2021. Agirre Lehendakaria Center).